

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

DURANGOKO UDALAREN ESKOLA KONTSEILUAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

HITZAURREA

Durangoko Udala jabetzen da hezkuntza udal politikaren lanik garrantzitsuenetako bat dela eta, hezkuntza alorrean legeak ematen dizkion eskumenen garapenean, bermatu egin behar duela hezkuntzaren programazio orokorrean inplikaturiko eragile guztien parte hartzeko eskubidearen eraginkortasuna. Horrela, bada, Euskadiko Eskola Kontseiluaren 13/1998 Legearen III tituluak arautzen duenaren arabera, proposatzen da Durangoko Udalaren Eskola Kontseilua sortzea, udalerrian unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programazioan aritzen diren alderdi inplikatuaren parte-hartze, kontsulta eta aholkularitza organoa izan dadin.


Horren haritik, Durangoko Udalaren Eskola Kontseilua sortzeak aukera emango du herritarren parte-hartzea eraginkorragoa izan dadin hezkuntzaren alorrean, eta horrek ahalbidetuko du botere publikoen erantzuna egokitzea, ahalik eta gehien, herriko hezkuntza komunitatearen beharrei.

Durangoko Udalaren Eskola Kontseiluaren bidez saihestuko dugu sakabanaketa eta alderdi edo estamentu bakoitzaren esku-hartzearen eraginkortasun eza. Era horretan, bakoitzak bere aldetik parte hartu beharrean eta bakoitzari kontsultatzen ibili ordez, guztiek baliozko bitarteko instituzionala izango dute, gizartea eta heziketa prozesuaren binomioan beharrezko oreka dinamikoa eta harreman estua ekarriko dituen.

I.KAPITULUA: KONTSEILUAREN ERAKETA ETA HELBURUAK

1. artikulua. Eraketa.

- 1.1. Durangoko Udaleko Eskola Kontseilua Durangoko udalerriaren esparruan, hezkuntza ez unibertsitarioaren programaziorako, jarraipenerako eta kontrolerako kontsulta, aholku eta parte hartzeko organoa da; eztabaidagunea izango da Durangoko ikastetxeentzat, ikasleen guraso elkarsteentzat eta ikasleen ordezkariarentzat; horrez gain, udalerriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren programaziorari dagokionez (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Helduen Hezkuntza), Euskara, Kultura eta Hezkuntza Udal Batzorde Informatiboak izango duen kontsulta eta aholkularitzarako tresna ere izango da.
- 1.2. Arautegi honek eta aplikagarri diren gainerako xedapenek zuzenduko dute kontseilua.
- 1.3. Kontseilua ez da Udal Korporazioaren menpe egongo eta autonomia funtzionala izango du.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

2. artikulua. Helburuak.


- 2.1. Gizarteak edo instituzioek hezkuntza komunitatearentzat bideratzen dituzten prestakuntza, kultura, kirol eta aisialdi eskaintzak koordinatu eta txertatzea.
- 2.2. Durangoko ikastetxeek udal mailan parte hartu dezaten ahalbidetzea.
- 2.3. Udalak dituen eskumenen barruan hezkuntzaren gaiak kudeatu eta konpontzearen Eskola Kontseilu Arrunta honen bidez Udala inplikatzeko.
- 2.4. Hezkuntza jarduerak Durangoko inguru geografikoan, sozioekonomikoan eta kulturalean, erabat integratu daitezen bultzatzea.
- 2.5. Pertsona bere osotasunean garatzeko ekimen egokiak bultzatzea: hezkidetzak, bizikidetzak, osasuna...
- 2.6. Hezkuntza esparruan komunitatearen inplikazioa areagotzea.
- 2.7. Hezkuntza arloan, euskararen normalizazioa eta erabilera bultzatzea. Eskola arteko paktua adostea, gutxieneko konpromisoa zehaztuz.
- 2.8. Ikasle etorri berrien beharrezkoen egokitzeko harrera eta jarraipen prozedurak sustatzea, gainerako ikasleek dauzkaten aukera sozial bertsuak izan ditzaten.
- 2.9. Herritarren hezkuntza beharrak betetzen direla ziurtatzea.

II. KAPITULUA: FUNTZIOAK

3. artikulua. Funtzioak.

Aipatutako helburuak bete ahal izateko Udal Eskola Kontseiluak ondoko eginkizunak egikaritzeko ditu:

- 3.1. Ondoko apartatuen inguruan iritzia eta aholkua eman eta proposatzea:
 - 3.1.1. Udal arloan, hezkuntza politika osoa diseinatzen inplikaturik dauden sail guztien parte hartzea bultzatzea.
 - 3.1.2. Hezkuntza arloan Udalak inbertitu behar dituen baliabideen finkapena, banaketa eta kudeaketa aztertzea, eta baita hezkuntza ekintzeterako Udalak bere aurrekontuan sar litzakeen beste funts batzuk (diru-laguntzak, jarduerak, etab.) ere.
 - 3.1.3. Hezkuntzari buruzko udal jarduerak aztertu eta proposatzea, ondorengo hauek bezalako gaiak jorratzen direnean: osasunerako hezkuntza, aniztasunaren tratamendua, gizarte laguntza, ingurumena, hezkidetzak, bizikidetzak, eskolaz kanpoko jarduerak, arautu gabeko hezkuntza, hezkuntza berezia, helduen hezkuntza iraunkorra, hasierako lanbide prestakuntza.
 - 3.1.4. Udaleko hezkuntza zerbitzuen prestazioa hobetzeko, Durangoko Udala ez den beste erakunde batzuekin, hots, Eusko Jaurlaritza, edo erakunde honen



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Berritzegunea edo Ikuskaritza, Osakidetza, Foru Aldundia, beste udal batzuk, etab., sinatu beharreko hitzarmenak aztertu eta proposatzea.

- 3.1.5. Durangoko ikastetxeek udal mailan parte hartu dezaten ahalbidetzea.
- 3.1.6. Durangoko Udalaren euskara, kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, ongizate, enplegua, aukera berdintasuna, hirigintza arloekin eta beste batzuekin elkarlanean aritzea, Durangoko hezkuntza arloari eskaintza bateratu, kalitatezkoa eta koordinatua emateko asmoz.
- 3.1.7. Eskola matrikulazio aurreko sasoietan eskola komunitateko eragile sozial eta biztanleei zuzendutako euskarazko hezkuntza ereduen aldeko sentsibilizazio-kanpainak antolatzea.
- 3.1.8. Euskara eta euskal kultura ardatz gisa harturik, balizko curriculum propio baten sorreraren alde lan egitea.
- 3.2. Udal Eskola Kontseiluak hezkuntza arloko administrazioari proposamenak edo ekimenak aurkeztu ahalko dizkio, udalerrri mailako edo udalerrian eragina duten udalerriaz gaindiko hezkuntza-arloko gaiei buruz.
- 3.3. Durangoko hezkuntza sistemaren egoerari eta hobetzeko proposamenei buruzko urteroko txostena landu eta egitea.
- 3.4. Heziketa integraleko eskaintza hobetzeko ekimen pedagogiko berritzaileak sustatzea.


III. KAPITULUA: KONTSEILUAREN OSAKETA

4. artikulua. Osaketa.

Presidenteak, presidenteordeak, kontseilariek eta idazkariak osatuko dute Durangoko Udal Eskola Kontseilua.

5. artikulua. Presidenteak.

- 5.1. Kontseiluko presidentea udaleko Hezkuntza Saileko zinegotzi-delegatua izango da, horretarako alkatetzak izendatutako pertsona.
- 5.2. Kontseiluko presidentea organoaren ordezkari gorena izango da, eta hauek izango dira bere betekizunak:
 - 1) Batzar Nagusirako deialdia egitea eta bilerako buru izatea.
 - 2) Batzar Nagusiko bilerak dinamizatzea.
 - 3) Arautegi hau interpretatzeko eta aplikatzeko egon daitezkeen zalantzak ebaztea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 4) Kontseiluaren berezko helburuak betetzen direla zaintzea eta Kontseiluaren jarduerak indarrean dauden legeetara egokitzen direla zaintzea.
 - 5) Hezkuntza Kontseiluak hartzen dituen erabakien berri ematea Batzordeari.
 - 6) Kontseiluaren ohiko funtzionamendua bermatuko du, eta, gainera, eskumena izango du bozketak erabakitzeko berdinketak izaten direnean bere kalitatearen botoaren bidez.
- 5.3. Huts egiterik, gaixotasunik edo bestelako arrazoi legalen bat gertatuko balitz, presidenteordeak ordezkatzeko du presidentea.

6. artikulua. Presidenteordea.


- 6.1. Presidenteak kontseiluko kide bat proposatzeko du presidenteorde izateko, eta Udaleko Eskola Kontseiluaren Osoko Batzarrak izendatzeko du berau, gehiengo sinplez.
- 6.2. Presidenteordeak presidentearen lekuan jardungo du kargua hutsik bada, edo hura kanpoan edo gaixorik bada, eta hark eskuordetutako ahalmenez baliatuko da.

7. artikulua. Kontseilukideak.

- 7.1. Hauek dira Udal Hezkuntza Kontseiluko kideak:

- a) Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko kideak: alderdi politiko bakoitzak proposaturiko ordezkaria, presidentearen alderdi politikokoa izan ezik. Iritzi eta boto eskubideekin.
- b) Udalerrian, irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen diren zentroen zuzendariak, iritzi eta boto eskubideekin: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Fray Juan Zumarraga Institutua Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1), San José (Jesuitak) HLBHIP (1), Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua (1) eta Durangoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxea(1). Guztira (11)
- c) Udalerrian, irakaskuntza ez unibertsitarioan aritzen diren zentro hauen guraso elkarten lehendakariak edo ordezkariak, iritzi eta boto eskubideekin: CEIP Landako Eskola HLHI (1), CEIP Zabalarra HLHI (1), CEPEIPS Kurutziaga HLBHIP (1), CEPEIPS Nevers HLBHIP (1), CEPES Ibaizabal BHIP (1), CEPES Maristak Durango BHIP (1), Instituto Fray Juan de Zumarraga-Durango BHI (1), San Antonio HLBHIP (1) eta San José (Jesuitak) HLBHIP (1).Guztira (9)
- d) Batxilergoa ematen duten ikastetxeetako ikasleen ordezkari bat.

- 7.2. Udaletik, teknikariak eta ordezkari politikoak izango dira kontseiluko kide.
Hauexek:



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría


- a) Kultura arloko zinegotzia, ahotsarekin eta botoarekin. Presidente lana egingo du, alkateak hala izendatu eta gero.
 - b) Udal talde politiko bakoitzeko ordezkari bat. Udal taldeek pertsona delegatua izendatu dezakete eta halaxe jakinaraziko diote Kontseiluko idazkariari. Halaber, titular bakoitzeko ordezkari bat ere izendatu dezakete. Kideen izendapena alkateak egingo du talde bakoitzaren proposamena jaso eta gero. Ordezkariok ahotsa izango dute, baina botorik ez.
 - c) Udal taldeak ahaleginduko dira euren ordezkariak euskaraz aritzeko gaitasuna dutela bermatzen, horrela, Kontseiluaren bilerak arin gara daitezen.
 - d) Hezkuntza arloko teknikaria, Kontseiluko idazkari lana egingo duena. Ahotsa izango du, baina botorik ez.
- 7.3. Presidenteak, bere ekimenagatik edo kontseilukideek proposatuta, pertsonak eta erakundeak gonbidatu ahalko ditu Udal Hezkuntza Kontseiluaren bileretara edo lantaldeetara, baldin eta beraien balorazioa, iritzia edo ustea interesgarritzat hartzen bada.
- 7.4. Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotakoak kontuan hartuta, Udal Hezkuntza Kontseilua osatzeko garaian emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin (sexu biek, gutxienez, %40ko ordezkartza) neurriak hartuko dira.

8. artikulua. Kontseilukideak izendatzea.

- 8.1. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, udal talde politikoek proposatuta, udal taldeen ordezkari izango diren kontseilukideak izendatuko ditu alkateak.
- 8.2. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ikastetxeen zuzendaritzek ikastetxeen ordezkari izango diren kontseilukideak proposatuko dituzte. Ordezkari horiek ikastetxeen zuzendaritza taldeetako kideak izatea proposatzen da.
- 8.3. Legegintzaldi bakoitzaren hasieran, ikasleen guraso elkarteek proposatuko dituzte ikastetxeetako ikasleen guraso elkartearen kontseilukideak.

9. artikulua. Idazkaritza.

- 9.1. Idazkaria udaleko hezkuntza arloko teknikarietako bat izango da.
- 9.2. Idazkaritzari dagozkio Kontseiluaren kudeaketa administratiboa eta teknikoa. Idazkaria Batzar Nagusian eta lan batzordeetan izango da. Idazkariak Kontseiluko Batzar Nagusiaren bileretan hitza izango du, baina boto eskubiderik ez.
- 9.3. Hauek dira idazkariaren funtzioak:
 - 1) Kontseiluaren batzarretara joatea, hitzarekin, baina boto barik.
 - 2) Kontseiluaren batzarretarako deialdiak eta gai-zerrendak bidaltzea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 3) Kontseiluaren batzarren aktak egitea eta dokumentazioa gordetzea.
- 4) Kontseiluaren erabakiak ziurtatzea, presidentearen oniritziarekin.
- 5) Kontseiluaren funtzionamendurako behar den laguntza teknikoa eskatu eta ematea.
- 6) Dokumentazioa prestatu eta kontseiluko kideei garaiz bidaltzea.
- 7) Dokumentazioa eta postazko harremana tramitatu eta artxibatzea.
- 8) Bileretako gai zerrenda prestatu eta deialdiak tramitatzea.
- 9) Kontseiluko organokoek eskatzen dizkieten eginbeharrak.

10. artikulua. Kontseiluko kideetza galtzea.

- 10.1. Hauek dira Durangoko Udal Eskola Kontseiluko kideek kide izaera galtzeko egon daitezkeen arrazoiak:
 - a) Agintaldia amaitzea.
 - b) Kide izateari uko egitea.
 - c) Kontseilua berritzea.
 - d) Talde baten ordezkariak diren aldetik, talde horretakoak izateari uztea.
 - e) Izendatzeko orduan egon ziren baldintzetako edozein betetzeari uztea.
 - f) Ezintasun iraunkorra edo heriotza.
- 10.2. Kontseiluan lekuren bat hutsik geratuz gero, dagokion taldeak beste pertsona bat proposatuko du legegintzaldia bukatu arterako edo postua uzteko geratzen den aldirako.


IV. KAPITULUA: EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA

11. artikulua. Batzar Nagusia.

Batzar Nagusia Kontseiluaren organo gorena da, eta honela dago eratuta: Presidentea, presidenteordea, idazkaria (udaleko hezkuntza teknikaria) eta kontseilukideak.

12. artikulua. Batzar Nagusiaren Ahalmenak.

- 1) Kontseiluaren jarduera-lerro nagusiak ezartzea.
- 2) 3. artikuluan zehazten diren eskumenei dagozkien txosten eta erizpenak eztabaidatu eta onestea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

- 3) Eskola Kontseiluko Kontseilu presidenteordea aukeratzea, presidenteak proposatu ondoren
- 4) Kontseiluaren barruko arautegia eta funtzionamendurako gainerako arauak, bai eta horien aldaketak ere, onartzea.
- 5) Lan batzordeak izendatzea eta koordinatzea eta euren eginkizunak ikuskatzea.
- 6) Udalbatzak arautegi hau aldatzeko udalaren sail eskudunari behar diren egintzak hastea proposatzea.

13. artikulua: Batzar Nagusiaren Funtzionamendua.

- 13.1. Ohiko Batzar Nagusiak ikasturtean zehar bi bilera egingo ditu gutxienez, presidenteak deialdia egin ondoren.
- 13.2. Batzarra ohiz kanpo bilduko da presidenteak erabakitzen duenean, edo Batzar Nagusiko ordezkarien erdiak hala eskatzen badute. Kontseiluaren Idazkaritzan eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik hasita zazpi egun naturaleko epea izango da ezohiko batzar nagusiko deialdia egiteko, eta 15 egun naturaleko epea bilera egiteko.
- 13.3. Ohiko batzarrak, ezohikoak bezala, gutxienez, 7 egun natural lehenago deituko dira. Presazko deialdia egiteko, osteraz, gehienez 4 egun naturaleko epea izango da. Hala ere, deialdiaren premia Batzar Nagusiak berretsiko du.
- 13.4. Gai-zerrenda kontseiluko presidenteak egoki deritzen gaiekin eta proposatzen dizkieten gainerakoekin osatuko da. Edozein kasutan, proposamen horiek kontseiluko presidenteari bidali beharko zaizkio, bilera egin baino gutxienez 15 egun natural lehenago.

Kontseiluaren idazkariak helaraziko die kontseilukideei gai-zerrendan dauden gaiak buruzko eztabaidarako eta botaziorako oinarria izango den dokumentazioa.


- 13.5. Batzar Nagusia baliozkoa izateko, eskubide osoko kideen herena bertaratu beharko da. Beti bertaratu beharko dira presidentea eta idazkaria, edo horien ordezkariak. Quorum hori bilera osoan beharko da.

Lehen deialdian ez badago quorum nahikorik, Batzar Nagusia ordu erdi geroago deituko da modu automatikoan, eta quorum berbera beharko da bilera balioarekin eratzeko.

- 13.6. Erabakiak adostasunez hartuko dira; bestela, botazio arrunta egingo da eskubide osoko kideen artean. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta botoa emateko eskubidea daukatenak abstenitu egin daitezke.

Gai bati buruzko eztabaida hasi eta ordezkari bat edo gehiago falta badira, botazioan abstenitu egin direla ulertuko da.

Botazio batean berdinketa dagoenean, berriro emango da botoa.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Botoa pertsonala da eta ezin zaio inori utzi. Titularrak edo Kontseiluko Idazkaritzan behar bezala egiaztatuta dagoen ordezkariak eman beharko du botoa. Postaz emandako botoa ez da onartuko.

Oro har, botoa publikoa izango da. Botoa isilpekoa izango da ordezkarien gehiengo sinpleak hala eskatzen duenean.

- 13.7. Batzarreko erabakiak, oro har, bertaratu diren eskubide osoko kideen gehiengo sinplez hartuko dira. Hala ere, beren-beregi zehazten diren kasuetan gehiengo osoa beharko da. Gehiengo sinplea izango da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Gehiengo osoa izango da baiezko botoak Kontseiluko kideen erdia baino gehiago direnean. Edozein modutan, kontseilu sektorialen izaera aintzat hartuz, Batzar Nagusiaren akordioek proposamen ez lotesleen izaera izango dute udal administrazioarentzat.
- 13.8. Beharrezko ikusiz gero, Batzar Nagusira udaleko beste teknikari batzuk bertaratu ahalko dira, eta baita eztabaidatuko diren gaietan adituak direlako edo eskumenak dauzkatelako gonbidatzen diren pertsonak ere. Hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

14. artikulua: Lan Batzordeak.


- 14.1. Lan batzordeak azterketarako eta lanerako organoak dira, eta Kontseiluaren menpe daude. Euren zeregina emandako helburuetarako egokiak diren txostenak eta proposamenak egitea da. Egiten duten guztiaren berri eman beharko diote Batzar Nagusiari. Lan batzordeen proposamenak Batzar Nagusiak onartu beharko ditu Kontseiluak bere gain hartu ditzan.
- 14.2. Lan batzordeak iraunkorrak izan daitezke edo gai zehatzak aztertzeko eratu daitezke, eta txosten modura aurkeztuko zaizkio Batzar Nagusiari.
- 14.3. Lan batzordeak Batzar Nagusiak sortuko ditu, ofizioz edo Batzar Nagusiko ordezkarien heren batek hala eskatzen duenean, eta izendapena, eraketa eta funtzionamendua finkatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 1991eko azaroaren 28an onetsitako Udaleko Eskola Kontseiluaren Araudia eta haren osagarri diren gainerako arauak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau indarrean sartuko da Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 artikulua ezartzen dituen baldintzak bete ondoren.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....
Idazkaritza
Secretaría

ORDEZKARITZA

(1)..... andreak/jaunak,
(2)....., adierazten du, ezin duela
.....ko-ren-(e)an egingo den Durangoko Udalaren Eskola
Kontseiluaren batzarrera joan, eta horrexegatik, DELEGATU egiten diola bere
ordezkaritza eta botoa andreari/jaunari.

Horrela agertzeko, sinatzen dute ondorengo dokumentua, Durangonko
.....-ren-(e)an

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatzailea

Sinatua. Jaun/Andrea.....
Delegatua

- (1) Delegatzailearen izen-abizenak.
(2) Kargua.